

## KANALAK

Gure produktua aplikazio bat da, eta *Playstore* eta *Appstore* plataformak dituen edozein aparatu elektroniko (mugikorra, ordenagailua, tablet-a) edukita gure app-a eskuratu dezake. Hori izango da gure bezeroengana iristeko kanala. Gure aplikazioak ez du aparteko webgunerik, aplikazio bera da gure komunikazio kanala.

Bezeroarekiko beste harreman-gune batzuk denda dira. Gure enpresa aplikazioa deskargatzen duen edozein pertsonaren herrialdeko dendekin aritzen da elkarlanean, bezeroari produktu ekologikoak saltzen dituen edozein denda erakutsiz.

